

1

URRIA  
2014

# ENERGIA

Infokontsumoa



 **kontsumobIDE**  
KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

 **Santurtzi**

# HORNITZAILEAK ETA MERKATURATZAILEAK

Itxuraz enpresa berbera diruditen arren, banatzailea eta merkaturatzailea konpainia desberdinak dira.

**ENPRESA BANATZAILEEK**, beste eginkizun batzuen artean, pertsona kontsumitzaileen etxeak energiari hornitzeko betebeharra dute.

Baina gure etxeetan energia elektrikoa izateko, **hornidura kontratua ENPRESA MERKATURATZAILE batekin sinatu behar da.**

**BI ENPRESA MERKATURATZAILE MOTA existitzen dira:**

- ▶ **Erreferentziako enpresa-merkaturatzaileak.** Tarifa arautua.  
Antzinako ABTa zeukan herritarrak zuzenean hartuko du, inolako aldaketa eta izapiderik egin gabe, **KTBPa (kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioak)**. KTBPa dirua aurrezteari ekar lezake, merkaturatzaile dagoen prezio erreala ezartzen delako eta ez duelako, beraz, inolako kosturik ekartzen prezioa ziurtatzeagatik edo bestelako zerbitzuak jasotzeagatik.
- ▶ **Merkatu askeko enpresa merkaturatzaileak.**  
Energia ofizialki ezarri gabeko prezioan saltzen dute (merkaturatzailearen prezioa), zeinen baldintzetan aztertu beharreko zerbitzu erantsiak sartu ahal izango diren.

Kasu bakoitzean zein enpresa dauden jakiteko:

[www.cnmc.es](http://www.cnmc.es)  
[Merkatu eta Lehiaren Nazio Batzordea](#)

## GOMENDIOAK


- ⇒ Zure **PREMIA ERREALETARA** hobekien egokitzen den potentzia kontratatu. Energia elektrikoaren truke ordaintzen den kopuru finkoa kontratatutako kilowattaren arabera da.
- ⇒ **ESKATU BETI KONTRATUAREN KOPIA BAT** idatziz, eta edukia tentuz irakurri.

**MERKATU ASKEAN KONTRATATZEA ERABAKITZEN BADUZU:**

- ⇒ Ez kontratatu arinegi, enpresa merkaturatzaileek lehenengo urterako eskaintzen dituzten deskontu handiek itsututa. **ERKATU ESKAINTZAK.**
- ⇒ Zerbait ulertzen ez baduzu, ez eman bankuko daturik eta ez sinatu ezer. **JASO EZAZU ALDEZ AURRETIK BEHAR BESTEKO INFORMAZIOA**
- ⇒ Kontratua telefonoz, Internet bidez edo etxean bertan egiten baduzu, garrantzitsua da kontratua eta berorren baldintzak paperean bidaltzeko eskatzea, bai eta **atzera egiteko agiria** ere, hartara, "damutu" egiten bazara, kontratua **14 eguneko epean** baliogabetzeko aukera izango duzu, inolako arazorik gabe.

# ENERGIA AURREZTEA

- ▶ Etxetresna elektrikoak erosterakoan modelo bakoitzaren energia gastua aintzat hartu. Erreparatu etiketari, A+, A++ eta A+++ gutxien kontsumitzen dutenak dira.



[www.kontsumobide.euskadi.net](http://www.kontsumobide.euskadi.net)  
KONTSUMOBIDE-Kontsumoko Euskal Institutua

- ▶ Gailu elektrikoak itzali erabiltzen ez dituzunean. "Stand by" k energia kontsumitzen du.
- ▶ Betiko bonbillen orde, kontsumo txikikoak edo ledak erabili.
- ▶ Gailu elektrikoak beti garbi eta egoera onean izan. Gehiago iraun eta gutxiago kontsumituko dute.
- ▶ Galdara egoera onean mantendu. Horretarako, beharrezko azterketak egin. Nahitaezkoa da:
  - Galdara berrikustea (bi urterik behin). Langile kualifikatuei eskatu.
  - Instalazioa berrikustea (lau urterik behin). Enpresa hornitzaileak egiten du.
- ▶ Berogailuak purgatu, zirkuitu barruko airea ateratzean, eraginkortasuna handiagoa izango da eta.
- ▶ Etxe barruan tenperatura altuak saihestu. Tenperatura gradu bat jaisten duzun bakoitzean % 8 aurreztuko duzu energian.
- ▶ Bero ihesak saihestu etxea hotzaren kontra isolatuz; berokuntzan % 20 eta % 40 artean aurrez dezakezu.

# IRAKURKETAK ETA FAKTURAK

2012/1718 Errege Dekretuari jarraituz, zein 15 Kw-tik gorakoa ez den potentzia kontratatuta duten tentsio txikiko energia-hornikuntzetarako den, **faktura bi hilekoa izango da (bi hilean behin)** eta kontsumitzaileek **benetan kontsumitutako argindarraren truke** baino ez dute ordainduko. Gainera, hileroko fakturazioa mantentzeko aukera izango dute.

Fakturazio mota berriak zenbait **salbuespen** ditu:

- ◆ Etxebizitzak **kontagailu digitalak baldin baditu teleneurri gaitasunarekin**, fakturazioa hilekoa izango da, hileko irakurketa errealetan oinarritutakoa.
- ◆ Fakturazioa hilerokoa izan daiteke, kontagailu-mota gorabehera, **baldin eta kontsumitzaileak beren-beregi onartu egiten badu.**
- ◆ Pertsona kontsumitzaileek merkaturatzailearekin beste fakturazio modu bat merkaturatzailearekin **adostu badu.**
- ◆ Irakurketak egin behar dituen enpresa **ezin izan bada etxebizitzako kontagailura iritsi**, eta pertsona kontsumitzaileak ez badu irakurketaren berri eman bi hilabeteko epean, irakurketa egin behar duen enpresak kontsumoa zenbatetsi dezake. Urte oso batean ez bada irakurketaren berri ematen, hornikuntza eten egin ahal izango da.



Zure fakturari buruzko informazio gehiagorako:

[www.controlastuenergia.gob.es](http://www.controlastuenergia.gob.es)  
Industria, Energia eta Turismo Ministerioa

## NOLA ETA NON ERREKLAMATU

Horrelako zerbitzu motak emateko kontratatu dugun enpresarekin arazoren bat izanez gero, urrats hauek eman behar ditugu:

Enpresa merkaturatzailearekin (kontratua sinatu duen enpresa)  
**AKORDIO ADISKIDETSUA** lortzen saiatzea.

Erantzun egokirik jaso ez baduzu,  
**HONA JO DEZAKEZU...**



- ▶ Arazoek lotura baldin badute fakturazioarekin, kontratuekin, eskaintzak ez betetzearekin edota bezeroari arreta eskaintzearekin, **Pertsona kontsumitzailea informatzeko zerbitzura (KIUB Santurtzi) edo KONTSUMOBIDERA (Kontsumoko Eusko Institutua)** jo behar duzu.
- ▶ Arazoa, berriz, horniduraren erregularitasunari eta kalitateari badagokio, edota segurtasun eta neurketa gailuen kontsumo eta potentziaren kontrol eta neurriari (irakurketak, neurtzeko ekipoa...), **Eusko Jaurlaritzako Industria Sailera** jo behar duzu.